

Flamenkoak hartuko ditu Iruñeko balkoiak abuztu amaieran

Flamenco on Fire jaialdiaren bederatzigarren aldia hilaren 24tik 28ra egingo dute • Vianan eta Tuteran ere egingo dira zenbait emanaldi

Ane Etxandi Iruñea

Lirika flamenkoa izango da Flamenco on Fire jaialdiaren gai zentrala aurten. «Lirikan zentratu gara, hitzen garrantzia azpimarratzeko», azaldu du Arturo Fernandezek, jaialdiaren zuzendaria. Ondorioz, musikaz gain, hitzek hartuko dute garrantzi berezia aurtengo aldian, bederatzigarrenean. Iaz eta 2020an gertatu ez zen bezala, ez da osasun neurri berezirik hartu behariko aurten, eta balkoien ikuskizunak

itzuliko dira, zeinak jaialdiaren bereizgarri izan diren beti.

Balkoi batean emango zaio, hain zuzen, hasiera jaialdiari, Vianan (Nafarroa). Atzo, Baluarte Jauregian egindako aurkezpenaren aurreratu zuten abuztuaren 12an izanen dela. F on Fire deitu dute, eta jaialdi nagusitik independentea izango da. Sandra Carrascok eta Joni Jimenezek irekiko dute udaletxeko balkoian. Gauean, aipatutakoez gain, La Fabi eta Alba Heredia arituko dira.



Rebeca Esnaola Nafarroako Kultura kontseilaria, atzo, Iruñean. INIGO URIZ / FOKU

Iruñean eta Tuteran (Nafarroa) hilaren 24an hasiko dira ekitaldiak. Tuteran ere udaletxeko balkoian hasiko dute, eta bi artista nafar arituko dira: Alberto Jimenez Gilabert *Bayron* eta Bruno Jimenez. Tuterako Gaztanbide aretoan Carmen Linares sona handiko abeslaria izanen da, Pepe

Habichuela gitarra jotzailearekin batera. Iruñean, berritasun modura, Nafarroako Muscoaren balkoia baliatuko dute. «Jakinarazi didatenez, inoiz ez da ezer artistikorik egin bertan, eta guretzat ohorea da gune hori estreinatu ahal izatea», adierazi du Fernandezek. Bertan, Rafael Riqueni gi-

tarra jotzailea arituko da, eta berak irekiko du jaialdia Iruñean. Riqueni beste artista batzuek jarraituko diote: horien artean dira Juanito Villar, Maria Jose Llergo, Jose Merce eta Juana de la Pipa.

Beste jarduerak

Musikaz gain, beste jarduerak asko antolatu dituzte. Nafarroako Ostalaritza eta Turismo elkarteak Gastrosabicas ibilbidea sortu du, adibidez, jaialdiari sukaldaritzaren alea jartzeko. Vianan, abuztuaren 8tik 14ra izanen dira, eta Iruñean eta Tuteran, berriz, 22tik 28ra. *Gastrosabicas.com* webgunean informazio osoa ikusgai dago. Horrez gain, haurrentzako jarduerak bat antolatu dute; Francisco Suarez *El Trombo*-k dantza tailer bat emango du.

Sari banaketa ere egingo dute aurten, eta flamenkoaren dibulgazioan aritzen diren pertsonak omenduko dituzte. Adibidez, Jose Maria Velazquez-Gaztelu poeta sarituko dute, irratian flamenkoaren inguruan dibulgazio lana egiteagatik. Pepe Lamarca argazkilaria ere jasoko du saria, eta, azkenik, Corral de la Moreria *tabla*o flamenkoa omenduko dute.